



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2015eko APIRILA - 163. zenbakia

## Elkarlanean aurrera

**Martxoaren 7an egin zen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia Senpereko Amotze auzoko Larraldea Etxean. Iazko memoria eta balantzea zein 2015eko egitasmoa eta aurrekontua aho batez onartu ziren.**

Andoni Iturriotz kultur eragileak Amotze auzoan duen Larraldea Etxean du egoitza Bertsularien Lagunak Elkarteak eta bertan egin du Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak 2015eko Batzar Nagusia.

61 bazkide gerturatu ziren Senperera proiektuaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzera. Bertsozale Elkartearen ikuspegi osoa izateko eta elkarlanean aurrera jarraitzeko indarra hartzeko ezinbesteko zita da.

Iñaki Murua Jauregik, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakariak, mezu horrekin hasi zuen batzarra, bizi ditugun garai zailetan inoiz baino gehiago elkarrekin eta elkarlanean aritzeak ematen digun babes eta indarraren kontzientzia izan eta bidea batera egitearen garrantzia azpimarratu zuen.

Sei elkarteren bilgune da Bertsozale Elkartearen proiektua eta halaxe irudikatu zen batzarrean, Ekaitz Elorriagak ordezkatu zuen Arabako Bertsozale

Elkartea; Asier Ibaibarriagak Bizkaikoa; Alaitz Rekondok Nafarroakoa; Miren Irigoienek, Gipuzkoakoa (Saroï Jauregik ezin izan zuen batzarrera bertaratu) eta Joana Itzainak Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsularien Lagunak Elkartea.

2015ean, ohiko zikloei jarraituz, jokatu berri diren Araba eta Nafarroako txapelketez gain orain udaberrian hasiko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren antolakuntzan jarriko ditugu indarrak.

Belaunaldi berriak bertsolaritzara gerturatu asmoz hezkuntza arautuan eta aisialdian diren proiektuei segida eman eta eskaintza hobetzen jarraituko dugu. Bertso-udalekuak eta negulekuak, ikastetxeetan bertsolaritza irakasteko proiektua, bertso-eskolak, eskolartekoa, sariketak... eta hainbat eta hainbat ekimen bideratuko ditugu aurten ere.

Belaunaldi ez hain gazteentzat ere izango da eskaintza: EHUren udako ikastaroen baitan *Bertsoa Unibertsitatean* bost eguneko eskola antolatuko da, baita *Ahoa Bete Hots* jardunaldiak ere.

Munduari begira ere jarriko da Elkartea... 2003an egin bezala 2016erako ahozko kantu inprobisatuari buruzko Kultur Arteko Topaketak antolatzen hasiko gara.

Diru kontuei dagokionez, Elkarte guztion artean osatzen den Elkartasun Kutzari eta finantzazioa eskuratzeko egindako lan eskerdari esker proiektuei eustea lortu dugu eta 2015erako ere izango da lanik zentzu honetan. Horri helduta, bazkide kuota igotzea erabaki zuen batzarrak,

bazkide arruntena 5 euro eta elkarte laguntzaileena 15 euro.

Egiturari dagokionez ez da aldaketarik eman. Kargudunak dira, beraz: Iñaki Murua Jauregi, Lehendakaria; Xabier Gaztelumendi Lopetegi, idazkaria; eta, Arrate Illaro Etxebarria, diruzaina.

### Bazkide kuota, maiatzean

Maiatzaren hasieran kobratuko da urteko bazkide kuota. Kuotak igoera izango du: bazkide kuota arrunta 50 euro izango da eta elkarte laguntzaileena 100 euro. Gai honen inguruan zalantzarik baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan: Tel: 943694129 / [administrazioa@bertsozale.eus](mailto:administrazioa@bertsozale.eus)



**MANEX AGIRRE**  
Gasteiz, 2015-III-21  
Arabako Bertsolari Txapelketako  
2015eko txapelduna

Familiarentzat dira besarkadarik minenak gaizki nagoen unetan goraino naramatenak. Baina beste bat buruan hala agintzen du senak bide *inexcrutableak* direnez adinarenak gogoan ditut gazteak bertso-eskoletan daudenak bertso-ekosistemak mini bertso-ekosistemak herri hau euskaran bidez herri egiten dutenak.



Senperen egindako batzar orokorraren une bat.//XDZ

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkartea / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / post@e: komunikazioa@bertsozale.eus

# Bertso topaketak eta udalekuak Bizkaian

**Ikasturteak aurrera egin ahala, ikasitakoa jendaurrean erakusteko garaia iritsi da. Horretarako, Bertso Topaketak antolatuko ditu Bizkaiko Bertsozale Elkartek.**

Gu ere Bertsotan proiektuaren baitan festa handiak izaten dira Bertso Topaketak. Gelan egindako lana kanpora atera eta herriko ikastetxeen artean egiten da ekimen hau. Ikasleen irudiak eskaintzen dira, gelan egindako bertso sortak abesten dira, bi bertsolari zuzenean aritzen dira bertso kantari eta gitarra jole batekin gelan landutako bertso doinuak eta kantu ezagunak kantatzen dira.

Aurten, apirilaren 24an izango da lehenengo topaketa Abantón, eta ekainaren 12an izango da ikasturteko azkena, Bilbon. Tartean, beste zazpi topaketa egingo dira beste horrenbeste herritan.

Tokian tokiko udal ordezkari eta euskara teknikarien laguntza eta parte hartzeari esker burutzen dira urtero topaketa hauek.



Oso harrera ona izaten dute bertso topaketek.//BBE

## Bilbon, bigarrenez

Horrez gain, Bizkaiko Bertsozale Elkartek Zenbat Gara Elkartarekin elkarlanean, bigarrenez antolatu ditu bertso udaleku irekiak Bilbon. Udaleku horien helburu nagusia Bilboko umeengan bertsozaleatasuna sustatzea da, euskal kulturaz eta euskaraz gozatzen duten bitartean.

Jolasak, kantuak, irteerak, bertsolarien bisitak, igerilekua... Primeran pasatzeko aukera paregabea eskaintzen du ekimen honek.

- Datak: ekainaren 22tik 26ra, astelehenetik ostiralera.
- Orduetgia: 9:30etik 16:30era.
- Adina: 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta, bereziki.
- Prezioa: 150 €
- Izen ematea: Apirilaren 13tik maiatzaren 15era, Bizkaiko Bertsozale Elkartean (bizkaia.aisialdia@bertsozale.eus edo 94 681 2711 telefonoa) edo Gabriel Aresti euskaltegian (944 237 591 telefonoa).


# Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna ospatuko dute apirilaren 26an Irunen

Herrialdeko Bertso Eskolen Egunaren edizio berria antolatu du hilaren 26rako Gipuzkoako Bertsozale Elkartek. Aurten Irunen izango da hitzordua eta, bertan, Gipuzkoan martxan diren bertso eskoletako ordezkariak elkartuko dira, egun pasa polita egiteko.

Goizeko 10:30ean hasiko emango zaio hasiera Bertso Eskolen Egunari. Ekintzak eta jolasak egingo dituzte, eta horren ondoren emanaldia eskainiko dute bertsolari gazteek. Bazkariaren ostean, kalejira bat egingo dute Irungo Amaia antzokiraino.

Izan ere, bertan eguneko ekimen inportante bat izango da 15:00etatik aurrera, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketako finala. Martxoan zehar egin dituzten kanporaketen ostean zortzi dira finalerako sailkatzea lortu duten bertsolariak eta horiek dira antzokiko oholtzara igoko direnak: Jon Ander Iriondo, Paul Iruretagoiena, Oier Etxeberria, Ana Zuazubiskar, Andoni Mujika, Asier Ibarguren, Beñat Mujika eta Iñigo Ibañez.

Eskolartekoaren finalak amaiera emango dio aurtengo Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunari.



Duela bi urteko Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguneko parte-hartzaileak.//GBE

# Ekitaldi ugari antolatu ditu Bertsozaleen Lagunak elkarteak

Ikasturtearen azken txanpari begira ekimen franko antolatu ditu Bertsozaleen Lagunak elkarteak. Azken hilabeteotan egin duten lana ikusaraziko dute ekitaldi horietan.

- 12 urte bitarteko gaztetxoek topaketak egingo dituzte apirilaren 18 eta 19an, Baigorriko Oronozia aterpetxean.

- 12 eta 17 urte bitarteko gazteen topaketak, berriz, apirilaren 21, 22 eta 23 izango dira, Zugarramurdiko aterpetxean.

- Hego Lapurdiko eskola elebidunen bigarren besta antolatu dute

maiatzaren 5ean, goizez zein arratsalde, Donibane Lohizuneko Ravel aretoan.

- Bertsozale Tiki Eguna maiatzaren 22an ospatuko dute Larzabaleko Herriko gelan. Barnealdeko ikastoletako haurrek hartuko dute parte bertan. Eta maiatzaren 29an, Miarrizeko Jai Alai ezker paretan, kostaldeko ikastoletako haurren txanda izango da.

- Azkenik, Bertso Eskolen Eguna ekainaren 6ko goizean ospatuko dute Hazparneko Zinema gelan. Leku berean arratsalde Eskolarteko Txapelketako finala jokatuko dute.

## Amaitu du denboraldia Hitzetik Hortzerak

lazko irailaren 28an abiatu zen Hitzetik Hortzera telebista saioaren denboraldi berria eta apirilaren 5ean izan zuen azken emanaldia. Osotara, 26 saio eskaini ditu Hitzetik Hortzerak, igandeko eta astelehenetako emisioetan. Horiek guztiak ikusgai dira Eitb-ren nahieran plataforman (<http://www.eitb.tv/eu/>). Datorren ikasturtea hastearekin batera, bueltan izango dugu Hitzetik Hortzeraren denboraldi berria

Amaitu berri dena ikasturte berezia izan da, ETB1eko saioak 25 urte bete baititu. Urte horietan egindako lanak fruitua eman du eta saioa erreferente bihurtu da telebistan zein bertsozaritzan.

### Helbide elektronikoko berria

Dakizuenaz, Bertsozale Elkarteak da Hitzetik Hortzeraren ekoizlea. Duela hilabete batzuk telebista saioa eta Bertsoa.com ataria biltzen dituen erredakzio bateratua jarri genuen martxan, sinergiak aprobetxatu ahal izateko.

Norabide horretan pausu berri bat eman dugu eta aurrerantzean [hedabideak@bertsozale.eus](mailto:hedabideak@bertsozale.eus) helbide elektronikoa izango dugu martxan. Helbide hori Bertsoa.com zein Hitzetik Hortzerarekin kontaktatzeko bidea izango da. Horrez gain, horra zuen albisteak, abisuak, bideoak, jakinarazpenak eta abarrekokak bidal ditzakezue



25 urte bete ditu Hitzetik Hortzera telebista saioak.//XDZ





# Puntua jarrita

JOSEBA BARANDIARAN

2007ko "Martxoan Bertsoa"ko txapela galtzeak ez hau pipertu, Azka! Bejondeiala! Eta hi, Gipuzkoaren periferiatik euskararenera salto egitea, ez duk Puppyren gauerdiko eztula.

Eskolarako zahartuta edo, bertso-geriatrikoan ari gaituk koadrila bat Potojorran, azken 15 urtean eguenero, Barrenkale Barreneko Iñakiren tabernan. Heriok Mauri kantulagun zarauztarra deitu arren, blegean sarri paratzen dugu bertsozik (<http://uriola.eus/komunitatea/Potojorran>) eta Konpartsen koplak txiki lehiaketako saria euskararen altzora ekarri dugu (Youtube: "Hauteskundeak Botojorran").

Askoz kezagarriagoa duk, Hego Urriben txapelketa osatzeko lau idi zahar, lau, gure kortatik atera behar izatea; idixko-bigantxak non ote? Neuk G puntuko lanak harmailarako utzi dizkiat. Bilbotartzeak hori dik ona: bizkaitar mozorrotzeko aukera, legazpiar petoenarentzat.

Txapelketako saioetan aspertu eta lo hartzeko arriskua diagu gure adinekook, batipat isilune luuuuuzeeetan. 40 urtetik aurrera, beti zagok sasoi joan eta gero ari ote garen susmoa. Baina urtetan bertsoak kontsumitzeak irakurketa kritikoa ere sustatzen dik; sormen ekologiko inperfektua baloratzea, potoak poto, bertso enlatatu transgenikoa baino. Bapatekotasunaren kontsumo talde gaituk Potojorran, geure txiki xaharrean. (Seme) Alabek plazarako adina bete artean bederen puntuari utsiko ote zioagu?!


Transmisioan Bilbon panorama ahula zagok. BEC edo Miribillako dizdira baino, euskararen eguneroko argilunak bizi gaitik Bilbon, Korrikak korrika eta Harro Ibiliko Ibilaldiak ibilaldi. Algorta da Bizkaiko bertso hiriburu; Bilbon, Santutxuren autopsia edo Elorri bertso eskolaren ekografia, zer dago gertuago? Zer dion hortaz, bertso-udalekuetan loratutako gure Malen Amenabar?

# Koplak

## Bertsoa Unibertsitatean eskolaren bigarren ediziorako bekak

EHUko Uda Ikastaroen barruan Bertsoa Unibertsitatean eskola antolatu du aurten bigarren urtez Mintzola Fundazioak. Donostiako Miramar Jauregian izango da, uztailaren 6tik 10era, eta bi ikastaro izango ditu. Apirilaren 24ra arte zabalik dago bekak eskatzeko aukera. EHUko Uda Ikastaroen atarian topatuko duzue eskaria egiteko informazioa. Hurrengo Bertsozalean eskainiko dizuegu Bertsoa Unibertsitatean ekimenaren informazio osoa.

# Poto-Finixa



Pelikula baten filmaketa izan zitekeen, baina ez da...

Bertsozale Elkartea

## 46 bertsolari, aurtengo BBK sariketan

Martxoaren 10ean hasi zen aurtengo Bertsolari Gazteen BBK Sariketari, eta martxoaren 26an izan zen finala, Bilboko Kafe Antzokian. Tartean 3 kanporaketa eta 2 finalaurreko jokatu dira. Aurten 46 bertsolari hartu dute parte taldekako sariketan. Finala Uribe-Kostak irabazi zuen, Lea-Artibairekin jokaturako saioan. Aurtengo berrikuntza nagusia gai-jartzaile taldea izan da. Gaiak lantzeko eta gai emaile lanetarako Bizkaiko Bertsozale Elkartek antolatu dituen formazio saioetan parte hartu duten gazteak ibili dira, gai-jartzaile esperientziadunek lagunduta.

Kontratazioak eta informazio gehiago:



Eneko Dorronsoro-ren dokumentala